



5 ELKARRIZKETA

Intza Fernandez herritarra Kontxako bandera amets

Kontxako banderan hainbat lasarteoriatar izan dira arraunean eta Lasarte-Michelin traineruak bandera preziatua lortu zuen 1969 eta 1973an. Duela lau urtera arte gizonen soilik parte hartu zezaketan lehian orduan emakumeen lehiaketa jarri zen martxan. Honen ondorioz, hainbat dira arraunean hasi diren emakumeak tartean Intza Fernandez herritarra. Zarautzeko taldean dabil eta Kontxarako sailkapena lortu ez arren itxaropentsu dago datozen denboraldietarako.



Astelehenean irailaren 16an, ez da TXINTXARRI-rik argitaratuko. Jarrai gaitzazu txintxarri.info web orrialdean edo facebook edo twitter kontuetan.

Mugikortasun Astean bizikletak nagusi Ostiralean bigarren eskuko bizikleta azoka txikia egingo da

Ingurugiro zinegotzia Nerea Sanchezek eta Artelatzeke Eli Gondatz teknikariak aurkeztu zuten atzo Mugikortasun Astearen egitaraua. Astearen leloa "Mugi zaitetz aire garbiago baten alde" eta astelehenean hasita ostirala bitartean gozatu ahal izango da ekintza bereziaz.

Herrian Mugikortasun Astea ospatuko da asteartetik, irailaren 17tik, ostiralera bitartean. Atzo Nerea Sanchez ingurugiro zinegotziak aurkeztu zuen ekintza egitaraua Artelatzeke Eli Gondatz teknikariarekin batera. "Mugikortasunak garrantzia handia du gure bizitzetan eta alor honetan jasangarritasunaz lan egiteak etorkizuneko mundu garbi eta osasuntsuago bat izatea ekarriko digu. Hori dela eta, bizikletari garrantzia eman nahi diogu egunerokotasuneko airea garbi mantentzeko gure eskura dugun tresnarik onena baita. Bestetik garraio publikoa ere ezin dugu ahaztu, bere erabilera handitzeak sare publiko osatuago bat izaten lagunduko baitigu".

Egun hauetan Mugikortasun Astearen baitan egingo diren ekimenen artean bereziki azpimarratu zuten irailaren 20an, ostiralean, Okendon egingo den bigarren eskuko bizikleta merkatu txikia "erabilitako materiala, bai bizikletak eta baita osagarriak ere saldu edo trukatu ahal izango dira".

Materiala 15:30etatik



Nerea Sanchez eta Eli Gondatz bidegorrian bizikletaren erabilera sustatzearren garrantziaz aritu ziren.

16:30era bitartean gordailuan utzi beharko dela azaldu zuten eta honetan parte hartzeko 16 urtetik gora izan beharko direla ere "umeak etorri ahal izango dira euren materiala uztera baina beti heldu baten laguntzarekin, horrela egin ezean ez zaio materiala hartuko".

Azokari buruz informazio gehiago eskuratzeko 943 670 249 telefono zenbakia jarri du udalak herritarren eskura egun hauetan.

Egitarau erakargarria

Urtero bezala ekintza erakargarriak antolatzen saiatu da udala. Irailaren 17an, asteartean, Manttangorria kaleetan barrena ibiliko da ohi bezala baina egun honetan "autobusaren erabilera sustatzeko eta ezagutzen ez dutenek anima daitezen" Manttangorriren zerbitzua doakoa izango da

zerbitzu guztietan. Asteazkenean, irailak 18, mugikortasun parkea egingo da Okendo plazan 16:30etik 19:30era.

Sanchezek esanetan "herritar guztiei zuzendutako jarduera da eta irisgarritasunarekin lotutako jolas eta jarduerak burutuko ditugu" ONCeren eskutik jolas didaktikoak ere izango dira.

Ostegunean kalea oinezkoentzat ekimena gauzatuko da. Kale Nagusian 16:30tik 19:30era jolasak eta kirol ezberdinak egingo dira baita Segway zirkuitua ere. Kalea beraz kotxeentzat itxita egingo da.

Berrikuntza ostiralean izango da. Horrela "errotzen hasi den bizikleta martxa" eta jolasez gain, Okendon bigarren eskuko bizikleta azoka txikia egingo da. "Txiki geratu zaizuen edo hautsez betetzen ari den bizikleta ekartzera

animatzen zaituztegu, beste batek aprobetxa dezake".

Ekintza hauekin batera, herriko eskoletako haurrek marrazkiak egingo dituzte gaiari lotuta eta astelehenean dendetako erakuslehoietan jarriko direla azaldu zuen Eli Gondatzek.

Bidegorria Donostiara

Agerraldiaren amaieran zinegotziak aurreratu nahi izan du "ilusioz Donostiarekin bidegorriaren lotura itxaroten ari gara". Aldundiarekin hainbat bilera eginda hilabete honen buruan Lasarte-Oria Donostiarekin lotuko duen bidegorriaren proiektua zehaztea espero da datorren urteko aurrekontuetan jaso eta gauzatu dadin.

Herritarren aspaldiko eskaera zen hau eta ondo bidean, datorren urtean burutuko lizitateke.



aek
Euskara praktikoa

ikasi euskara eman izena **aek-n**
Azterketa ofizialak eta itzulpen homologatuak www.aek.org

- Autoikaskuntza
- Euskararen agiriak
- EGA
- Hizkuntza perfilak (1-2-3)
- Euskalduntzeko maila guztiak

Geltoki kalea 17, beheka • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 372863 lasarte@aec.org

Neure kabuz



Unai Muñoa
Usteak uste

Hitzek nahasten gaituzte, ustea horixe baita, uste. Zenbat iritzi, harribitxi, nahiz eta azkenean, ondorio berdinerari iritsi: bakoitzak duela bere egia, eta gehienetan, ez badu kalte egiten besteon eskubideetan, zilegia. Gainera, ia beti ez dira hainbeste ideak, gehiago esaten du norberaren bideak. Horregatik batzuk hain diskurso politikak egiten dituzte, baretu nahian, kontzientziak bere ezbaian, eragiten dizkieten mila buruhauste. Dituzte da ditugu, Erroma, herria, plaza... ere bagara gu. Gu da ni, eta zenbat gutustzen zaion plaza idazten ari den honi.

Zertarako sinetsi, agian neuk ere sostengatuko ez dudana bihar edo etzi. Gezurrak moztortzen dira hitzetan, egiak, ordea, errazago aurkitzen dira begietan. Behintzat, bestea hartu aintzat eta ikusiz begiratzen denetan. Zeren, ez dakit ez ote garen esna baino lo bizi. Nola adierazi... Beldurraren eta amorraren titere, lerro artean irakurri gabe, beti ere, robotak bihurtu gara kasi. "Lasai, nik erakutsiko dizut, zuk ikasi!"

Erosi, eduki, gailurrera iritsi, erdietsi, lortu... eta garenaren beldur, ez garena izaten egoskortu. Modara jantzi, nahiz eta konplexuz beteta erantzi. Bestearen inbiditan, nor izan nahian besteen begitan, konturatu gabe norbera bezalako beste bat ez dela mundura sortu. Ez daude ni bezalako bi, eta eskerrak, esango du zenbaitek, asko estimatzen ez nauen baten batek, baina bakarra eta bakana naizelako da hori. Zertan jarraitu orduan, besteei begira, behar ditudan aukera guztiak nire baitan sortzen badira?

Ez dakit... zer pentsatua ematen dit. Korronteak nora-eezan daramala, paperezko barkutxo bat bezala, esna ere lo gaude oraindik. Nik nahi dut iratzarri, bizitzari arreta jarri, dakidalako bestela, esperientziak erakutsi dit horrela, zaila dela egiten irri.

Baina, hitzek nahasten gaituzte, eta ustea horixe da, uste.

Zorion agurrak




Itsaso
Zorionak eta bi muxu potolo Maitane, amaxo eta amatxoren partez



Nagore
Zorionak bihotzita!!! 7 muxu potolo aita-xo eta amatxoren partetik.



June
Zorionak etxeko printzesa, Eñaut, aita-xo eta amatxoren partez txokomarrubizko 4 muxu potolo.



Garazi
Zorionak gure 7 urteko printzesari etxeko guztien partetik! Muxu goxoak denon partez!



Naiara
Zorionak eta txintxo txintxo ibili! Zure txito eta untxien partetik!



Unai
Gogoratu paregabe egiten zaituena, apaltasuna eta bereizten zaituen zintzotasuna ere. Zorionak!



Malen, Aizpea eta Eneritz
Zorionak eta muxu pila hiruei familia guztiaren partetik.



Antonia eta Valentín
Zorionak zuen urrezko etzeingatik seme-alabak, ilobak eta familiaren partetik.



Imanol
Zorionak zure urtebetez gurasoak, Richard, Pablo eta Maiteren partetik.



Joana
Zorionak guraso, zure ahizpa Enara, aitona-amonak eta Maiteren partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Garajea alokatzen da erdigunean: itxia bi autorentzat. 686 674 552
- Garajea alokatzen da Atsokabarren, Garaikoetxea ikastetxe parean. Sarrera erraza du, handia eta merkea da. 943 36 54 76/659 021 945

Lan-eskaria

- Lan bila nabil, interna, gaeuz, orduka lan egingo nuke. Harremanetarako, 649 907 548.
- Etxeko lanak egin edo haur zein pertsona adinduak zainduko nituzke. Asteazken zehar edo asteburuetan. Harremanetarako zenbakia, 675 625 919.

- Astearte, asteazken eta ostiraletan arratsaldez lan bila nabil, zaintzaile zein garbiketa lanak egingo nituzke. Erreferentziak eta pape-rak ditut. 619 803 199

Bestelakoa

- Maila eta adin guztietarako ingeleseko klaseak eskaintzen ditut. Harremanetarako zenbakia, 693 601 222.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Aimar Carballes Palacio, irailaren 6ean.
- Iraia Jauregi Ormazabal, irailaren 5ean.
- Jon Galan Calleja, irailaren 2an.
- Narroa Garcia Bello, abuztuaren 31ean.

Heriotzak

- Josean Oineder Barandiaran, irailaren 3an, 70 urte zituela.
- Jesus Yeregui Garayoa, irailaren 2an, 83 urte zituela.
- Eduardo Balerdi Mugika, abuztuaren 30ean, 43 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 13 Rodríguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Larunbata, 14 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Igandea, 15 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Astelehena, 16 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Asteartea, 17 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Asteazkena, 18 Urbisondo, San Frantzisko 1	943 366567
Osteguna, 19 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Aldabe, Perkaiztegi 8
Hernani, Tel.: 943 336 022

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Muntteri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttikon Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azumendi, Nerea
Etzagire, Jon Altuna E.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mañu Amuti,
Aster Odriozola, Jone M.
Hernandez, Oihana Salazar,
Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:
Xabier Amadoz

UDALA

Euskotren eta Jaurlaritzari soinua murrizteko eskaera

PSE-EEK hainbat gai buruzko eskaerak egin zituen

Ohiko Udaltzarrak izan zen astearte arratsaldean. Honetan 2013 urteko aurrekontuen dosiera guztiz onartu zen. Era berean, Eusko Jaurlaritza eta Euskotren-i trenak sortzen duen soinua murrizteko neurriak har ditzan eskatuko die Udalak.



Trenak sortzen duten soinuaren aurkako neurriak eskatzea adostu zen Udaltzarrean.

Nerea EIZAGIRRE

Oporren osteko lehen Udaltzarrak burutu zen. Bi gai nagusi izan ziren mahai gainean, 2013 urteko aurrekontuen dosiera eta PSE-EEK aurkeztutako Euskotreneko soinuaren murrizteko eskaera.

Udaltzarrak hasi baino lehen alkateak hitz batzuk egin zituen alkatetzako idazkari zen Jose Luis Juarez gogoratuz eta Vanessa Velez PP-ko zinegotziari doluminak eman zizkion bere aitaren heriotza zela eta.

Ostean, 2013 ekitaldiko aurrekontuen kontu orokorren dosiera onartu zen. Estixu Alkorta, ogasuna eta kontu bereziak ataletako batzorde buruak azaldu zuenez, aurrekontuen prozedurari amaiera emateko azken pausoa da. Bildu, EAJ eta LOHP-ren bozkekin atera zen aurrera puntua.

Jarraian, talde sozialistak aurkeztutako mozioa aztertu zen, Euskotrenek Urbarte auzoan sortzen duen soinuari buruzkoa, hain zuzen ere. Honetan Jesus Zaballosek beste udalerrietan Jaurlaritzak burututako lanak kontutan

hartuta Lasarte-Orian ere Euskotrenen zarata gutxitzeko sistemak jartea eskatu zuen.

PSE-EE eta EAJ-ren artean azken neurketei buruzko eztabaida izan bazen ere, aho batez onartu zen eskaera.

Bilduk azaldu zuen Atso-bakarren ez ezik, Pintore kalean eta Somoto ibilbidean ere neurriak har ditzatela eskatuko duela.

Galdere eta erreguak

Azkenik galdere eta erreguen txandan PSE-EEK hainbat gai jarri zituen mahai gainean.

Batetik Udaletxe berrira lekualdaketa dela eta, Udaletxe zahar eta pisuen erabilera-ri buruz galdetu zuen. Bestetik informazio eza salatu zuen, "batzorde asko ez dira bildu hilabeteetan eta kooperazio arloko auditoriak ez ditu epeak betetzen".

BM-ko eskaileren eta Okendoko parkinaren egoeraz ere galdetu zuen eta Udalak egingo duen inkesta aurkezpenen gezurra esatea leporatu zion Gobernuari. PSE-EEK ez baitu inkestari buruzko informaziorik izan, ezta galderak proposatzeko aukerarik ere.

Hirigintza saileko ardura-dunak Nerea Sanchezek azaldu zuen, Udaletxe zahar eta pisuentzako plangintza bat egiten ari direla eta hurrengo batzordean azalduko zaiela alderdiei.

Okendoko aparkalekuei dagokionez, alokairuan atezarzteko desioan daudela eta aurki egiteko prest egongo direla aipatu zuen.

Era berean, BM-ko eskaile-rik garbitzeko eskatu dela adierazi zuen. "Arazoa lur sailean belarra hazten ez dela da. Beraz birlandatzeko eskatu zaio enpresari".

Inkestari dagokionez, alkatetako azaldu zuen, ideia alderdi guztiekin irekia egitea zela eta udan guztiekin jakin arazi zitzaiela proposamenak egiteko aukera. Inkesta Aztkier enpresak egingo duela ere jakitera eman zuen eta Udalaren ekimena dela azpimarratu zuen, "denon eskura egongo da".

Auditoriarik dagokionez, lanean daudela jakitera eman zuen Estixu Alkorta eta alkateak "hasiera espero baino beranduago izan zen, beraz atzeratua doa lana" azaldu zuen.

BATUKADA

Dinbi Bandaren batukada ikastaroa

Lasarte-Oriako Dinbi Banda batukadak zabaldu du ikasturte berrirako izen-ematea. Entseguak larunbat goizetan izango dira 12:00etatik 14:00etara urritik ekainera bitartean.

Ikastaroa euskaraz izango da eta hilabetero 20 euro ordaindu beharko dira. Informazio gehiago eskuratzeko ikas-taroa@dinbibanda.com edo 686 669 469 telefonora deituz.

MUSIKA

Xumela abesbatza martxan

Xumela abesbatzako lagunek astelehenean, irailak 16, hasiko dute ikasturte berria. Lehenengo entsegu hau ohi bezala Landaberri BHI-n izango da 19:30ean. Kide berriak ongi etorriak izango dira eta entsegu egunetan agertzea besterik ez dutela azpimarratu dute abesbatzakoek.

PSE-EE

Alkatearen irudiaren erabilerarekin haserre

Jesus Zaballos PSE-EEko bozeramaileak Lasarte-Oriako alkatea GARA aldizkari iragarki batean agertu dela eta, bere harridura agertu zuen atzo goizean eskaintako prentsaurrekoan.

PSE-EEko bozeramaileak kargu publiko batek bere irudia enpresa pribatu baten onurarako erabiltzea salatzen. Sozialisten aburuz, aldizkariak pertsonaia ezagun baten irudia erabili du herritarrek hau eros dezaten, "herritar anonimoa izango balitz ez litzake iragarkian egongo".

Zaballosek argi utzi zuen Pablo Barriok bere bizitza pribatua nahi duen komunikabidea aukeratu dezakeela, "baina alkate bezala bere irudia zaindu behar du. Eguneko 24 orduetan kargu publikoa gara. Lasarte-Oriako herritarren interesak defendatu beharko litzuke, ez ezker abertzalek gertu degoen enpresa pribatu batena".

Lasarte-Oriako sozialisten ustez, alkateak ez du karguak eskatzen duen mailarik erakusten eta gai honi buruz, beste alderdiek duten iritzia ere jakin nahiko luke PSE-EEK.



BIYAK BAT ELKARTEA

Castro Urdialesera irteera

Biyak Bat elkarteak jakitera eman du, irailaren 26an, osteguna Castro Urdialesera txangoa anolatatu duela. Autobusa Biyak Bat elkarteak egoitzetik aterako da goizeko 8:30ean eta egun pasa egingo dute Kantabriako herrian. Irteeran izena emateko epea irailaren 16an, astelehenean irekiko da.

BURUNTZALDEA

Euskaltegiaren matrikulazioa abian

Andoaineko elkarte ziren eskualdeko udal ordezkariak eta euskaltegiaren arduradunak. Bertan euskara ikasteko matrikulazioa zabalik dagoela gogoratu nahi izan zuten eta Ainara Rodríguez Andoaineko euskara zinegotziak azpimarratu moduan, herritarrek animatu zituzten izena ematera. Lasarte-Oriaren kasuan, udal euskaltegia eta Munterri AEK-n egin daiteke matrikulazioa. Udalek ikasketa hauek sustatzeko asmoz, diru laguntzak martxan dituzte, matrikularen %40tik %75 artekoak dira Lasarte-Oriako udalak ematen duena.

www.buruntzaldea.org gunean euskara atalean ikasleek, euskaltegien informazioa aurkitzeaz gain, mailakate frogak egiteko aukera dute, beti ere frogak hauek orientagarriak dira ikasleak bere euskara maila zein den ezagutu dezaten matrikula egiteko aurretik. Horretaz gain, sarean ere aurki daiteke udal baitokozean ikasleentzat dauden diru laguntzen informazio osoa eta Solaskide ekimenaren inguruko argibideak.



III. Parapetasonik jaialdia larunbatean

Lasarte-Oriako gazteek metal doinuak gozatzeko aukera izango dute aurten ere III. Parapetasonik jaialdian.

Inguruko talde gazteei zuzenean jotzeko aukera ematea helburu duen jaialdi autokudeatuak aurten ere zortzi talde bilduko ditu Parapetasonik arratsaldeko 17:00etatik gaueko ordu txikiak arte.

Taldeak

Lasarte-Oriako "Hilotz" eta "Gabezia", Urrietako "Pino-txet", Donostiako "Biers-breaker", Iruñeko "Legalize

Murder", Zarauzko "Thrash-Gression", Zumaiako "Izu Nauk" eta Hernaniko "Behatze Roja" izango dira Parapetasonik.

Kontzertuen ondoren, festak METAL DJ-aren eskutik jarraituko du. Beraz, metal estilo desberdinak entzuteko aukera izango da jaialdian.

Antolatzaileek aurreratu dutenez, gainera, herriko "Gabezia" taldeak bere maketa aurkeztuko du jaialdian. Eta edariak prezio ezinhobean izango direla ere aipatu dute, "kalimotxo eta garagardoa euro batean".



Jaialdiko kartela eta taldeak.

Erdi Aroko Azoka gaurtik Isla plazan

■ Hirugarren urtez Erdi Aroko Azoka ospatuko da asteburuan ekintza ugariarekin

Arratsaldean emango zaio hasiera Lasarte-Oriako Erdi Aroko azokari. Asteburuan zehar asko izango dira honen baitan egingo diren ekintzak. Lehenengoz Okendotik Isla plazara eramatea erabaki du udalak herriko ostalari eta dendarien eskariari erantzunez.

Erdi Aroko azoka izango dugu asteburuan. Hirugarren urtez bufoiak, jugla-reak, zaldunak eta euren ezkutariak musikariekin batera gure kaleetan barrena ibiliko dira. Gaur, arratsaldean hasiko dira ekintzak inaurerazio kalejira bereziarekin 18:30ean.

Hala ere, aurtengo edizioan bada berrikuntza nagusi bat kultura sailetik azpimarratu nahi izan dutena, hain zuzen, Okendon kokatu beharrean Zumaburuko Isla plazan egingo da azoka.

Bizilagun, dendari eta tabernariaren eskaera izan da halako festak gainontzeko auzoetara ere eramatearena udalarekin izan dituzten bileretan.

Kasu honetan, begi onez ikusi du udalak Erdi Aroko azoka Isla plazara eramatearena eta bertan egingo dira

azokaren baitan antolatutako antzerkiak "erdigunea zabaltzea du helburu leku aldaketa honek".

Hala ere gehienak kalejira eta kale ikuskizunak izaki, herriko kaleetan barrena ikus-terko aukera izango dira.

Ikuskizunak

57 artisau postu izango dira plazan kokatuko direnak, haurrentzako jokoak, noria eta pottokak egongo dira bestelako jolasekin batera, eta aurrekoetan bezala taberna ere ez da faltako.

Gaur ostirala azokari irekiera ofiziala egingo zaio kalejira batekin.

Ondoren, Eskekoak, 20:00etan Gurutzadetara, 20:45ean Agoteren eta Damaren amodio ezinezkoak eta 21:30ean Aitaren bulda kale ikuskizunekin gozatzeko aukera izango da.



Erdi Aroko Azoka gaur hasiko da 18:30etatik aurrera.

Egitaraua

Larunbata, irailaren 14a

11:30, "Egun onaren" pregoia
12:00, Zalduna eta ezkutaria
12:30, Bideko musikak eta kantak
13:00, Jentila vs Kristaua
13:30, Komediante erromesak
18:30, Akitaniako Leonor

erreginaren segizioa
19:30, Okzitaniako trobadoreak eta koblakariak
20:00, Agoteren eta Damaren amodio ezinezkoak
20:30, Bideko musikak eta kantak
21:30, Akelarrea

Igandea, irailaren 15a

11:30, "Egun onaren" pregoia

12:00, Eskekoak
12:30, Bideko musikak eta kantak
13:00, Txotxongiloak: Zeken diruzalea
13:30, Koblakaritzak
18:30, Elbarrituen erromesaldia
19:00, Jentila vs Kristaua
19:30, Gurutzadetara
20:15, Zalduna eta ezkutaria
21:00, Aita Moisesen bulda

Irakurle txokoa martxan da

Euskal Literatura sustatu eta euskararen beste arnagune bezala aurkeztu zen asteartean irakurle-txokoa. Pablo Barrio eta Donetz Iradi taldekideek Uxue Alberdi txokoaren dinamizatzailearekin agerraldia egin zuten.

Donetz Iradik txokoaren sortzearen zergatia azaldu zuten, "euskal literatura gogoko dugu eta honi buruz hitz egiteko txokoa sortu behar zela uste genuen".

Txokoaren dinamizatzaile den Uxue Alberdik "gaur egun zaila da modan ez

dagoen literaturari buruzko solasaldiak izatea" aipatu eta taldean irakurtzea aberasgarria dela azpimarratu zuen.

Saioak

Alberdik azaldu moduan, hilabete behin egiten diren bi ordu edo bi ordu eta erdiko saioak dira.

Hauetan teknika literarioetaz edo pertsonaietaz ez ezik, liburutetan jorratutako gaiari buruz eta irakurleei sortzen dien emozioez hitz egiten da.

Honela, taldeko ardura-dunek azaldu zuten, z

lehengo hiruhilabete honetan hiru saio izango dira. Lehenengoan urriaren 15ean, Miren Agur Meaberen "Kristalezko begia" liburua landuko da. Azaroaren 19an, berriz, Irene Nemirovsky-ren "Dantzaldia" lana izango da hizpide eta abenduaren 10ean, Harkaitz Cano-ren "Twist" eleberriri buruz hiz egingo da. Saio guztiak 18:30ean hasiko dira eta Villa Mirentxun izango dira.

Saio hauetara idazleak ere gonbidatuko dituzte.



Irakurle-txokoaren kideak eta herritar batzuk Uxue Alberdi dinamizatzailearekin.

Uxue Alberdik "zorteko gara, puntako euskal idazleak gurekin eser ditzakegu" aipatu zuen. Horregatik, Miren Agur Meabe edo Harkaitz Canoren bisitak izango

dituzte txoko honetara gerturaten diren irakurleek.

Prentsarrekoaren ostean, lasarteoriatar ugari hurbildu zen irakurle-txokoaren aurkezpen saiora.



REFORMAS

Javier Lasa

Tfnoa 688618596

xabilasa@euskaltel.net

Konpromezurik gabeko aurrekontuak

Konponketak

Bainontzi aldatzea

Sukaldeak

Komunak

Presupuestos sin compromiso

Pequeñas Reparaciones

Sustitución de Bañeras

Cocinas Baños

Gipuzkoako erakusketarik zabalena 500m²-tan



www.jostamendi.com 

Easo 51 20006 Donosti • Tel.: 943 470244

Artaleku 3 20300 Irun • Tel.: 943 638223

- Haur kotxeak
- Paseoko aulkiak
- Sehaskak
- Tronak
- Autorako aulkiak
- Bainerak
- Biberioak
- Osagarriak
-

Intza Fernandez Arraunlaria

“Zaila da trainerua menperatzea”

Zarauzko traineruan Kontxako banderako sailkapenean egin zuen arraun

Kontxako banderan hainbat lasarteoriatar izan dira arraunean eta Lasarte-Michelin traineruak bandera lortu zuen, 1969 eta 1973an. Duela lau urtera arte gizonek bakarrik parte hartu zezaketen lehiari, baina emakumeen lehiaketa jarri zen martxan. Honen ondorioz, hainbat dira arraunean hasi diren emakumeak. Intza Fernandez herritarra horietako bat du. Aurten Zarauzko traineruan izan da Kontxako badiako lehia nagusia. Sailkapenean azken-aurten geratu ziren arren, ongi egindako lanaren poza du.

Nerea EIZAGIRRE

Duela bi urte hasi zen Intza Fernandez gaztea arraunean. Hamazazpi urteko herritarrak beste kirolrik ez zuen gogoko eta talde desberdinekin jarri zen harremanetan. Honela, Zarauzko arraun elkartearen hasi zen batel eta trainerilletan lehiatzen. Aurten trainerura egin du salto eta Zarautz eta Tolosak osatutako taldean izan da Kontxako banderan. Lasarteoriatar gaztearekin bildu gara aurtengo denboraldiari buruz hitz egiteko.

Nola sortu zitzaizun zaletasuna?

Nik telebistan ikusten nuen eta ez nuen kirolrik egiten. Orduan probatzea otu zitzaidan.

Taldeei emailak bidali eta Zarautz izan zen interesatzen bakarra. Beste guztietan ez zuten interesik agertu edo ez zegoen nesken talderik. Nire familian ez dago arraunlaririk, baina beste kirolrik ez zitzaidan gustatzen, ez futbola, ez saskibaloia...

Soilik traineruan ari al zara? Edo trainerillan eta arraun mugikorrean?

Neguan batelean, ibili naiz, trainerillan ere egin ditut proba batzuk eta udako denboraldia traineruan egin dut.

Eta zein mailatan lehiatu zara?

Bateletan 2. urteko junior mailan izan naiz, urte hau egin eta senior mailara iritsiko naiz.

Trainerillan eta traineruan senior mailan ibili naiz. Alde handia dago.

Saririk lortu al duzue?

Trainerillan, Zarautzeko proba irabazi genuen, baina hiru talde ginen bakarrik.

Bateletan ere ez genuen saririk egin.

Eta traineruan Gipuzkoa Ligan parte hartu duzue...

Trainerua Tolosakoekin batera osatu genuen. Hamalau neska gara gehi lau ordezko. Horietako bi kadeteak dira eta ezin dira lehiatu. Beraz, nahiko juxtu ibili gara.

Talde gaztea gara gainera, batzuek 17 urtekoa da. Uste dut bakar batek iaz traineruan egin zuela, baina beste guztientzat lehengo urtea da traineruan gaudena.

Nola joan da udako denboraldia?

Gogorra izan da, ia astebururo lehiaketa genuen. Aste eta erdiko atsedanak izan ditugu ere.

Lehiaketetan ahal duguna egiten dugu, gure lehengo urtea baita.

Zenbat entrenatzen duzue?

6 egunetan ordu bat edo ordu eta erdi. Entrenatzaileak esaten duenaren arabera.

Hori udako entrenamenduetan dagokionez, neguan hiru egun fisiko egiten ditugu eta besteak uretan.

Kasu honetan ere, entrenatzaileak zehazten digu zer egin.

Eta proba bat baino lehen?

Normal entrenatzen dugu. Baina proba baino egun bat lehenago erritmoa lasaigoa da. Ziabogak, irteerak eta biraketak prestatzen ditugu.

Era honetara, probara lasaia iristen saiatzen gara.

Eta dieta zaintzen al duzue?

Medikua dugu eta zer jan behar dugun aholkatzen digu. Batzuetan pisua jaitsi behar dugula esaten digu. Baina ez da zorrotza, zure esku uzten du, ez du dietarik jartzen. Orion esate baterako oso zorrotzak dira horrekin baina Zarautzen ez hainbeste.

Eusketan Ligako sailkapen estropadan parte hartu zenuen?

Bai, baina ez ginen sailkatu. Horrek ere prestatzeko eta ikasteko balio izan digu.

Eta noski Kontxako kanporaketan izan zineten? Nola bizi izan zenuen?

Gogoak genituen Kontxan lehiatzeko. Eta jendea animatzen ikustea eta gu txalotzen... Oso polita izan zen.

Nola ikusi zituzten arerioak?

Maila desberdinak daude Zumaiara, galegoak... Bizkaia eta

Hondarribi oso parekatuak egon ziren.

Guk Orio pasa nahi genuen, baina azkenean Santonia baino hobek izan ginen.

Gu talde gaztea gara eta gure entrenamendu maila eta beste aldeena ez da berdina. Zumaia 6 urte behar izan ditu dagoen lekura iristeko. Beraz, pixkanaka...

Honetaz gain, desberdintan handia dago emakume eta gizonen arraunean, ezta?

Bai, baina orokorrean kirol

guztietan dago desberdintasun hori. Ez da bidezkoa baina ni dagoeneko ohitu naiz.

Zer suposatzen du arraunlari batentzat Kontxan lehiatzea?

Kontxan lehiatzea oso garrantzitsua da arraunlariarentzat.

Esperientzi bizi eta gero, zer esango zenieke ikusleei?

Arrauna ez da telebistan ikusten den bezalakoa, jendeak uste du bertan eserita egotea dela eta listo, baina gogorragoa da. Zaila da trainerua ongi menperatzea.

Intza Fernandez gaztea duela bi urte hasi zen arraunean eta dagoeneko, Kontxako banderan sailkatzeko lehiatu da.





ALCAR VENTANAS
Zuregandik hurbil
Etorri gure denda berrira,
Plaza Oriamendi, 2. (Lehenko Doble J)

GUARDIAN SUN | KÖMMERLING® | Bandalux | CORTIZO

www.facebook.com/VentanasAlcar

Jarri gure Facebook! Gure jarretzaile artean, laster kasiko gara oparirik bawatzeko.

PVC, aluminio eta zubi termikoaren haustura, lantzen ditugu

Tel: 943 37 78 68
tienda@ventanasalcar.com
www.ventanasalcar.com

Jarraitu hemen, www.facebook.com/VentanasAlcar

- Leihok
- Ateak
- Itxiturak
- Armariuak
- Barandak
- Portalak
- Erakusleihok
- Kontraleiho landatarrak
- Kontraleihoak lama finko eta orientagarria
- Pertsianak
- Saretak

- Sabai-Leihok
- Toldak
- Errezel-Hormak
- Beirateria orokorrean
- Duxako manparak
- Sarrera ate korazatuak
- Komposite materialekin horma estaldurak
- Kartel komertzialen instalakuntza
- Gortinak



ERAKUSKETA
Plaza Oriamendi, 2
20160 - Lasarte-Oria
Gipuzkoa (Lehenko Doble J)

TAILERRA
Ibaiondo, 4 erdisotua 5-A
20160 - Lasarte-Oria
Gipuzkoa

LABURRAK.-

Kaskante bikain
suhiltzaile eta polizien
mundialean

Imanol Kaskante udaltzaina Suhiltzaile eta Polizien Joko Mundialetan izan zen Belfasten, Irlandan, uztailearen 6tik 8ra eta bi domina lortu zituen bertan, bata urrezkoa eta beste zilarrezkoa.



"Emaizta oso ona izan da.

Joan baino egun batzuk lehenago orkatila bihurritu eta ezin izan nuen nire maila erakutsi. Probak orkatila lotuarekin egin behar izan nituen eta batzuetan mina nabaritu nuen. Hala ere, urrea eta zilarrezkoa lortu nituen", aipatu digu.

Lasarte-Oriako udaltzainetako kideak ergometroko bi probatan parte hartu zuen, 500 m. proba mistoan eta 2000 m.-ko bakarkakoan. Urrezko eta zilarrezko domina eskuratu zituen Kaskantek, hurrenez hurren.

Bikotekako txapelketan ezin izan zuen parte hartu Pasai San Pedro, Astillero, Hondarribi edo Urdaibai taldeetako arraunlari ohiak. "Batetik edo bestetik ezin dut proba hori egin, New Yorken urakana izan zen eta oraingoan orkatila dela eta".

Illarramendi eta Civicos atletak bikain asteburuan

Lasterketa garaia iritsi da, horregatik, lehenengo asteburuan Lasarte-Oriako korrikalariek hainbat hitzordu zituzten eta Andoain eta Donostian bi lasateoriatar izan genituen podiumeko bigarren mailan, Andoni Illarramendi eta Nieves Civicos.

Larunbatean, Sorabillako Mendi krosean lehiatu zen Andoni Illarramendi. Andoingo Sorabilla auzoko eta Belkoango gurutzeko joan-etorria, 8,5 km, egin zuen 37:54 denboran eta Hassan Ait Chaou Aitali billabonatarrek bakarrik gainditu zuen, 34:59. Illarramendi ez zen proba honetan parte hartu zuen herritar bakarra izan, Iraitx Arruabarrenak laugarren postuan amaitu zuen, 39:31.

Bestalde, Nieves Civicosen emakumeen mailako bigarren iritsi zen, 18:34 denborarekin, Jolastokieta krosseko helmugara. Naiara Casi irabazleak minutu bat baino gehiagoko errenta izan zuen, 17:28.

Buruntzazpi txirindulari eskola lanean

Buruntzazpi txirindularitza eskola lanean da eta eskolako ardura-dunek jakin arazi dutenez, aurten hiru mailatan egingo dute lan.

Hasiberriak larunbatetan 10:00etatik 11:00etara Lasarte-Oriako Urbarteko jolaslekuan izango dituzte goiz-pasak. Eskolak haurrak guraso edo arduradun batekin joan beharko direla jakietara ematen du, eskola kirolaz kanpoko ekintza baita.

Alebin eta infantil mailako gaztetxoek Usurbilgo Oiardo kiroldegian egingo dute lan astearte eta ostiraletan, 18:30etik 19:30era. Kadete eta jubenilek ere egunero izango dute saioa Usurbilgo Oiardo kiroldegian.

Taldeko kide izan nahi dutenek Usurbilgo Oiardo kiroldegiko gihartzetzelan dituzte izena emateko orriak.

Honetaz gain, zikloturista edo lehiaketarako lizentzia federatua atera nahi dutenek, buruntzazpi@gmail.com helbidera mezua bidal dezakete.

FUTBOLA.-

Euskal Ligan hasiera ederra

Ohorezko Mailako taldeak larunbatean du lehen partida

Lasarte-Oriako futbol taldeek 2013-1014 denboraldiari hasiera emango diote pixkarena. Ostadarreko Euskal Ligako kadeteek lehenengo astean izan zuten lehen partida Loiola Indautxuren aurka eta garaipena 6-2 lortu zuten. Ohorezko Mailako erregionalak, berriz, aste honetan du lehen jardunaldia Zarautzen aurka.



Lasarteoriatar ugari hurbildu zen Kirol gunera Euskal Ligako partida ikustera.

TXINTXARRI

Euskal Ligako kadeteen partida ikusi zen larunbatean Michelin kirol gunean. Loiola Indautxu izan zuen aurrean eta hiru puntuak etxean geratu ziren. "Lehen partiduen ondorioak onak izan dira, emaitzak berak esaten du", adierazi du Fernando Bravo taldearen entrenatzaile berriak.

"Partida oso ondo hasi ondoren, 2-0, gure bi erruekin, 2-2 jarri ginen markagailuan. Eskerrak akatsa azkar zuzendu genuela eta erasoan oso ondo jardun ginela". Atsedendian 4 eta 2-koa zegoen markagailuan eta amaieran, Ostadar 6-2 gailendu zen.

Euskal Ligako entrenatzaileak adierazi duenez, "aurre-denboraldian egindako lanarekin pozik egon arren, ligako lehen partiduen sentazioaren zain geunden, aurre-denboraldian lagunarteko jardunak eskasak izan dira".

"Nahiz eta jende arteko ikuspegia zalantzakoa izan, emaitza honekin, ilusio argi

txiki bat ireki dugula pentsatzen dut", adierazi du.

Gainera, "jokalariek berriak, beraiengan konfiantza hartu dute eta honela errezago izango da lan egitea", aipatu du Bravok.

Taldea berria eta lana

Entrenatzaileak aipatu legez, talde berriak aurkeztu zuen Euskal Ligako kadeteak lehen partida honetan. Jokalariek gehienak, lau izan ezik, "maila honetan estreinatu dira".

Alde teknikoari begira ere, berrikuntzak daude. Fernando Bravorekin batera laguntzaile lanetan Arkaitz Sanchez egongo da eta Antxon Navarro atezain entrenatzailea izango da.

Eta entrenatzaileak eskerak eman nahi dizkio Ostadar SKT-ri egindako apustuarengatik. "Etxera bueltan ilusio handiarekin nator".

Erronka polita du, "kategoria hau, lehen mailakoa da adin honetan, eta Ostadarren helburua herriko jendearekin mantentzea da. Oso helburu zaila, noski".

Horregatik lan handia duela azpimarratu du, baina

"talde sendoa egiten badugu, errezago izango dugu helburua lortzea".

Larunbat honetan, Athletik-aren aurka jokatu dute Lezaman.

Beste mailak

Larunbatean ere, Erregional Ohorezko mailako taldeak hasiera emango dio denboraldiari etxean eta Zarautz izango du aurrez aurre.

Lehenengo asteburuan, aldiz, Ordiziaren aurka hirunako berdinketa lortu zuen.

Bestalde, Ostadar, zein Texas Lasartearekin taldeetako beste mailako taldeak prestakuntzarekin jarraitzen dute. Horregatik, lagunarteko edo txapelketak jokatu zituzten lehenengo asteburuan.

Texas Lasartearekin taldeko Erregionalak bere mailara jaitzi berri den Rotetaren aurka galdu zuen.

Ostadarreko Ohorezko jubenilak, berriz, 3 eta 1 irabazi zion Zumaiakori.

I. jubenil taldea Urrietan Fernandez eta Begiristainen oroimenezko txapelketan izan zen. Hernani eta Urrietaren aurka galdu zituen partidak.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 14

Michelin, 10:30ean

Ostadar-Union Sport San Vicente
Lagunartekoa, Kadete Txikia

Lezama, Bizkaia, 11:45ean

Athletic Club-Ostadar
Euskal Liga, Kadeteen Ohorezko maila

Michelin, 12:15ean

Ostadar-Union Sport San Vicente
Lagunartekoa, I. jubenila

Michelin, 15:00etan

Ostadar-Amiak Bat
Lagunartekoa, Jubenilen Ohorezko maila

Michelin, 17:00etan

Ostadar-Zarautz. Erregional Ohorezko maila

Iganeda 15

Michelin, 10:00etan

Ostadar-Ekintza
Lagunartekoa, Kadete C taldea

Michelin, 11:15ean

Texas Lasarteerra-Euskalduna
Lagunartekoa, I. Erregionala

PILOTA

Ostirala 13

Alegi, 19:00etan

Inxurre I-Intza
Eskuz binako bikoteka, II. kadetea
Ezker hormako txapelketa

ATLETISMOA

Larunbata 14

Egia, Donostia, 20:00etan

Herriko hainbat korrikalariek
Porrongo jaietako XVI. Krossean -
2. Gau krossean parte hartuko dute.

Iganeda 15

Idiazabal, 09:30ean

Herriko hainbat atleta
I. Axari trail-Mikel Garmendia
Memoriala proban izango dira lehiak.

Leitza, 09:30ean

Herriko hainbat korrikalariek
Plazaolako VI. Maratoio erdian parte
hartuko dute.

Urnieta, 11:00etan

Herriko hainbat atletek Urnieta
XVII. Herri Biran parte hartuko
dute.

PATINAJEA

Iganeda 15

Iruñea, 10:00etan

Herriko zenbait irristalariek Iruñea-
Gares Nazioarteko V. maratoian
parte hartuko dute.

TRIATLOIA

Iganeda 15

Donostia, 09:00etan

Herriko hainbat atletek Wildwolf
Triatloi proban parte hartuko dute.

TXIRINDULARITZA

Iganeda 15

Biyak Bat elkartea, 08:30ean
Ostadar SKT-ko zikloturistek
Zaldibira dute irteera.

Ibarra, 10:00etan

Bazpi Txirindularitza eskolako eta
herriko jubenilek XXXI San
Bartolome Sarian parte hartuko dute.

Agenda

Larunbata 14, Parapetoan, 17:00etatik aurrera



Metala nagusi Parapetasonik jaialdian

III. Parapetasonik jaialdiaz gozatzeko aukera izango da, berriro ere Lasarte-Orian. Metal estilo desberdinak entzungo dira Parapetoan izango diren taldeen eskutik:

17:00etan, Pinotxet
18:00etan, Gabezia
19:00etan, Biersbreaker
20:00etan, Legalize Murder
21:00etan, Izu Nauk
22:00etan, Thrashgression
23:00etan, Hilotz
00:00etan, Behatxe Roja
Ostean, Metal DJ

Bestelakoa

LASARTE-ORIA

Astelehena 16-Igandea 22

Mugikortasun astea ospatuko da Lasarte-Orian. Hainbat ekintza burutuko dira.

Astigarraga

Argazki lehiaketa

Irailaren 15era arte

"Astiko" Astigarragako Merkatarien elkarteak uda osoan zehar "Astigarragako txokoak" argazki lehiaketa antolatuko du. Oinarriak edo informazio gehiago www.facebook.com/astikoastigarraga orrialdean aurkituko duzue.

Hernani

Musika

PLAZA BERRI

Ostirala 14, 12:00etan

"Kalez Kale Kantari" kantu jira izango da Hernaniko kaleetatik barrena.

Usurbil

Bestelakoa

OIARDO KIROLDEGIA

Igandea 15, 07:00etatik aurrera

Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak Artikutzara irteera antolatuko du. Autobusez egingo da joan etorria. Bertan 16 kilometroko ibilbidea egingo da. Izen ematea irailaren 11a baino lehen egin behar da. Informazio gehiago, www.andatzamendizale.info orrialdean.

Lasarte-Oria

Musika

ZULO ARETOA

Ostirala 13, 22:00etatik aurrera "ASKI DA" eta "Oreindik" taldeen kontzertua gehi DJ Makalaren saioaz gozatzeko aukera.

Larunbata 14, 23:45etik aurrera

Doinu elektronikoak izango dira DJ Maikol Knight & Ben Cosby-ren eskutik. Zulo aretoak eta Kaixo FM-k antolatutako saioa.

Ostirala 20, 21:00etatik aurrera

"More Jaia"-k Bass Music saioa egingo du.

Larunbata 21, 21:00etatik aurrera

Punk rock gaua izango da, lehenik "Ramonetarrak" eta "Los Putos" taldeen kontzertua entzuteko aukera izango da. Ostean, DJ Toño Puñala Ramone-ren saioa.

Antzerkia

OKENDO PLAZA

Ostirala 20, 22:00etatik aurrera

"Entre Lombrices" kale antzerkia eskainiko dute. Dignitatea existituko ote da heriotza zelatan dagoenean? Kuriositatea mantentzen al da lur azpiak metro bat zaudenean?

Erdi Aroko azoka

ISLA PLAZA

Ostirala 13-Igandea 15

Erdi Aroko azokaz gozatzeko aukera izango da. Artisautza eta janari postuak, ekitaldiak eta haurrentzako jokoak izango dira asteburu osoan zehar.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Iraila amaiera arte

Ion Benitez eta Unai Azkarateren diseinu grafiko eta collage-en erakusketa ikusgai dago.

Herritarren txokoa

Alboka Abesbatzaren entseguak

Alboka abesbatzak entseguak hasiko ditu. Herriko abesbatzak 16 eta 65 urte arteko herritarrak animatu nahi ditu entseguetara hurbildu eta probatzera. Ez da beharrezkoa musika ezagutzarik izan edo abesten jakitea.

Entseguak astelehena eta ostegunetan 20:00etatik 21:30etara burutuko dira, Arantzazuko Ama elizazpiko aretoan. Anima zaitzete!

Margo eta marrazki ikastaroa

Lasarte-Oria Bizilagunen elkarteak antolatzen dituen margo eta marrazki ikastaroko izen-ematea irailaren 16, 17 eta 18an egingo da, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara, Iñigo de Loyola 12 behean duten egoitzan.

Galdutako arropa

Sorgin Dantzako entsegutan Landaberri BHI-n jendeak ahaztutako hainbat arropa jaso da. Hauek guztiak Ttakuneko bulegoan dago beraz galdu dutenek harrera orduan pasa daitezke jasotzera.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858
 txintxarri@txintxarri.info

Eskutitza

Hipoakusiak aitortu eta ordaindu

Zarata dagoen guneeetan lan egin ostean milaka dira entzumen-urritasuna pairatzen duten langileak (industria edo eraikuntzako langileak, tailer mekaniko edo aroztegietan lan egiten dutenak, musikariak...). Prebentzio Zerbitzuetako sendagileek, azterketa medikoan hautemandako lan gaixotasunaren susmoa jakinarazten ez duten bitartean langileek ez dute pairatzen duten galera auditibo horren ondorioz dagoen kalte-ordainik jasoko lan gaixotasun moduan aitortu gabe daudelako. Hauetako langile askok, erretirorako adinetik gertu, audifonoak erosi behar izaten dituzte gorrieriak sortzen duen isolamendu soziala ekidin nahian eta ez dakite protezi hau Mutuaren kontu joan daitekeenik ere.

Aspaldi CCOOren laguntzarekin gaixotasun profesionala aitortzea lortu zuten askoren gaitza areagotu egin da eta kasu horietan ere beste kalte-ordaina jasotzeko eskubidea dute. Milaka langilek bizirauten dute langabeziako diru-laguntzarekin jakin gabe, nahiz eta prebentzio zerbitzuak bere garaian jaki-

narazpenik ez egin edo CCOOra erreklamazioa egitera etorri ez baziren ere, Mutuak ordaindu beharreko 1.210 eta 3.582 euro bitartekoa kalte-ordaina jasotzeko eskubidea dutela.

Uda honetan aitortu du OSALANek lehengo aldiz amiantoa, Silikosisia eta Hipoakusien aitortza esanguratsua Euskadin, ekintza sindikalaren ondoriozkoa izan dela, bereziki Euskadiko CCOOren lanaren emaitza (2013ko lehenengo 8 hilabeteetan CEPROSSen erregistratutako 908 Hipoakusien %70 baino gehiago Euskal langileek dira). Tamalez, Lan Agintaritzak ez du Prebentzio Zerbitzuak eta enpresak zigortzeko ez kontrolatzeko erabakirik hartzen egiten duten lan "txapuzeroa" eta zarata dagoen guneeetan bete behar dituzten neurri prebentiboak ez bete-tzeagatik.

Bukatzeko, "Prebentzio Tekniko" batzuen hozkeria salatu nahi dut "garrantzitsuena prebentzioa da, ez kaltearen konpentsazioa" bezalako diskurtsoak erabiltzen dituztenean. Begiak ixten dituzte gaixo dagoen langile kopuruaren aurrean. Zarata ekidinezin-

tzat jotzen dute eta babesa irtenbide bakartzat. Urteetako esperientzia sindikalak erakutsi dit, langileen kaltea ikustaraztearen bidea dela onena lan baldintzak eta prebentzioa hobetzeko inplikaturak dauden agente guztiak martxan jartzeko, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari eta Mutuei kosteak bereganatzera derrigortzen dituzten bitartean.

Krisi garaian kaltearen aitortza eta bere konpentsazioa eskatzea inoiz baino garrantzitsuagoa da.

Jesus Uzkudun Illarramedia
 CCOOko Lan Osasuneko
 aholkulari eta aktibista



LARZALDIK
ZALDI TURISMOA

Lartzandieta Baserria
Urdaiaga Auzoa, 44
20170 Usurbil
Tel.: 666 607447
info@larzaldiak.com
www.larzaldiak.com

GPS Koord.
43.266031,-2.067587



ZALDI IRTEERAK
sagardoa
eta
pintxoak
barne

Egin zure planak,
GU
kontuan hartuta

2013 - 2014 Euskara Ikastaroak

- Maila guztiak eta ordutegi zabala. Txandaka aritzeko aukera
- Astelehenetik ostegunera.
- **AUTO-İKASKUNTZA** (mintzamina taldean).

Azterketetarako prestaketa

- Hizkuntz eskakizunak eta **HABEren 1., 2. eta 3. maila (EGA).**
- Titulu homologatuak: Osakidetza, Hezkuntza, Ertzaintza eta Administrazioarako balio dutenak

Ikastaroaren iraupena: Irailaren 19tik ekainaren 20ra arte.

Diru-laguntzak ditugu. Galde ezazu!

Matrikulaldia: Irailaren 2tik 18ra

Bulego ordutegia: 08:30-19:15 // tel: 943 36 16 21



Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia

Beheko kale bidea 1

TF: 943361621

e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.org



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

EUSKARA
EUSKALTEGIA

Euskara

ikasteko aukera

2013-2014

ona eta merkea

Diru-laguntzak

%40-%75

Edozein lasarteoriarrentzat matrikularen %40 arteko diru-laguntza. Gurasoentzat, merkatarientzat eta begiraleentzat %75 artekoa.

Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Beko kalea bidea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 19tik 18ra

Muntteri-AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behea
- Telefonoa: 943 372 863
- e-maila: lasarte@aeek.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 2tik 27ra

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.org



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

EUSKARA
ZERBITZUA